

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, OSAKIDETZA-OSASUNAREN EUSKAL ZERBITZUA ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2015.**

---

Joan den ekainaren 29an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen Osakidetza-Osasunaren Euskal Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren ekonomia-finantzazko kudeaketaren fiskalizazio txostena, 2015eko ekitaldiari dagokiona; baita, Osatek SArena ere, non Osakidetzak baltzu kapitalaren % 100aren jabetza duen.

Bi erakundeen **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du; salbuespen da Osakidetzaren kasuan, langileria jakin baten erretiro osagarriengatik geroko ekitaldietan ordaindu beharreko obligazioak kontabilizatuak ez izatea (gastu hauek ordaindu ahala kontabilizatzen dira eta 2015eko abenduaren 31n kontabilizatze dagoen zenbatekoa 110,3 milioi eurorena dela balioetsi da) eta garbiketa zerbitzuaren emakidadun diren enpresekiko ordainketa konpromisoak ere ez izatea, langileen ordainsariei dagokienez, 6,3 milioi euroan.

Txostenak ondorioztatu du bai Osakidetzak bai Osatek, SAk **zuzentasunez bete dutela** 2015eko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen **lege arautegia**; alabaina, ikusi da Osakidetzak kontratu txiki modura izapidetu dituela botika eta bestelako hornigaien erosketak, 10,3 eta 65,5 milioi eurorenak, kontratazioaren xedea zatikatuaz. Gainera, hornidurako espediente batean (64 ebaketako bi TAC aparatu) ez da justifikatu presakotasun bidezko izapidea.